

GAZTELUGATXE DONIENERA JOATEKO PROMESA-II

Anton Erkorekak Bermeon 1971an bildutako kondaira zaharra

Bi gizon, mutil-lagun, ziren elkarri esaten ziotenak:

- Ni lehenago hiltzez banaiz Doniene Gaztelugatxera lagundu behar didazu eta zu hiltzen bazara nik lagunduko zaitut.

Bi horietako bat lehenago hil zen eta San Juan Portalera zihoan bere lagunari agertu zitzaion, eta esan zion:

- Fulano ni naiz. Saskia korta barruan, hemen, utzi. Hemen aurkitu duzu itzultzen zarenean eta San Juanera lagundu behar didazu.

Gero, kanposantu zaharren inguruan esan zion:

- Non nahi duzu jartzea, aurretik ala atzetik?

Esan zion:

- Ez dakit zer esan.

- Beste espiritu bat etortzen bazaizu ez esan ia aurretik joango zaren. Zu beti jarri atzetik, bestela Donienera eraman beharko duzu sorbalda gainean. Hildakoa, aurretik, eta, bizirik dagoena, atzetik, bestela zuk eraman beharko duzu sorbaldan Donieneraino.

Eta hildakoa aurretik eta bizirik zegoena atzetik zihoazen. Sasi artetik zeraman eta hildakoa pasatzen zen heinean bidea garbitu egiten duen eta bizirik zihoanak bide garbia aurkitzen zuen. Horrela Donieneraino.

Horrela promesa bete zuten eta itzuli orduko oraindik zeuden itsasontziak uretara irten barik. Eta esan zion:

- Beno, agur eternitateraino.

Eta oraindik itsasontziak uretara irten barik zeuden.

Anton Erkoreka

Etnografia de Bermeo, 3

Leyendas, cuentos y supersticiones

Doniene Bilduma

Bilbao, 2000